

EUSKARA BATUA EUSKALDUNAK BATZEKO

PAULO AGIRREBALTZATEGI

(UZEIko partaidea eta EKBko lehendakaria)

Euskara idatziaren batasuna bideratzeko Euskaltzaindiak Arantzazun egindako batzarre historiko hartatik 25 urte beteko dira datorren honetan.

Batzarre hark eta bertako irizpideek urratua zeukaten bidea lehenagotik ere. Euskal literaturaren historian hasieratik bertatik hainbat autorek azaltzen zuen euskararen forma idatzi batuaren kezka, Euskaltzaindiak berak bere sorrerako helburuetan «literatur hizkuntza batua eratzea» ipini zuenerako, batzarrea baino 50 urte lehenago (1918); ondorengo urteetan euskalari askok beren proposamenak eginak zituen batasuna lortzeko bideari buruz; baina urrats konkretuak eta benetan eraginkorrak egin asmoz, euskal idazle ugari hasi ziren 1960 ingurutik aurrera elkarrekin irizpideak lantzen eta erabakiak hartzen; Arantzazuko batzarrean bide-urratzaile garrantzizko eta nolabait erabakiorrak izan ziren idazle askoren artean egindako beste bi haiek (Baionakoa [1964] eta Ermuakoa [1968]).

Aurrehistoria horrek, ordea, ez dio Arantzazuko Batzarreari bere garrantzia kentzen, handiagotzen baizik.

Euskara batua eta euskara bizia

Ez da nere eginkizuna hemen idatzizko euskararen batasun bidean eginiko urratsak eta izandako gorabeherak deskribatzea; *ELE*ren zenbaki honetako artikulugileek azalduko dituzte horiek zabalean. Hala ere, horiei buruz ohartxoren bat edo beste eginez hasi nahi nuke.

Orain dela 25 urte —benetan lehenagotik—hasitako batasunaren prozesua ez da burutu. Oraindik badira argitu eta zehaztu beharreko kapituluak: lexiko batua, hitz eratorrien eraketa, mailegaturiko hitz berrien idazkera, kanpoko onomastikaren egokitzapena, etab. Euskaltzaindiaren zenbait batzordek horrelakoetan dihardu. Seguruenik hizkuntza biziaren dinamikan batasunaren eta berezitasunaren indarrak etengabe lanean ari dira; eta batasunaren helburua ez da inoiz benetan burutzen. Euskararen guztiz desorekatuta zeuden indar horiek; horregatik garrantzi handikoa izan da belaunaldi honetan egindako ahalegina, sarritan ez ukorik eta nekerik gabea.

Gaur egun inor gutxik ukatzen du idatzizko euskara batuaren beharra; hori gabe ezinezkoak izango ziren gure hizkuntzak hogeita bost urteotan egin dituen urratsak eta irabazi dituen barrutiak: irakaskuntzan, liburugintzan, komunikabideetan, administrazio erabileran, alor tekniko eta zientifikoetako erabileran. Gero eta gutxiago dira era berean Euskaltzaindiak duela 25 urte abiatu eta ondoren landutako batasun-eredua orohar zalantzan jartzen dutenak.

Hala ere, ez da buruhausterik eta gora beherarik falta izan «euskara batua» eguneroko hizkuntz praktikan ipintzean: arazo lexikal, terminologiko eta sintaktikoak hizkera tekniko eta zientifiko modernoan lantzean, espresio-arazoak literatur-kreazioaren alorrean, arazo didaktikoak eskolan eta euskalduntze-alfabetzeko lanean. Funtsean euskara batuaren eta euskalkien —euskalki guztien— arteko dinamika bizia eta elkarreragina lortzeko bidean aurre egin beharreko arazoak dira denak. Alfabetatze-euskalduntzearen plangintza eta langintza zabala pentsaezinak dira euskararen eredu estandarrik gabe.

Idatzizko euskara estandarizatuak, ordea, bestelako arazorik ere ekarri du ahozko hizkerarentzat. Izan ere, euskara idatziaren normalakuntza nabarmentzean, arriskua dago idatzizkoaren formak eta

normak ahozkoaren gain eragin handiegia izatekoa, jendeari euskararen fonetika-lege jatorrak ahaztea edo baztertzea eragiteraino. Horregatik, gero eta premiazkoagotzat hartzen da, idatzizko euskara estandarren ondoren, edota horrekin batera, ahozkoarentzako ere funtsezko araubidea aztertu eta lantzea. Ikus-entzutezko komunikabideen zabalteak batez ere gero eta larriagoa egiten du arazo hori.

Euskara batuaren dinamikak eragin du bestelako buruhauste psikologiko eta sozialik ere herritarrengan, eta bereziki euskaldunenengan. —Hemen ez gara sartuko erdaratik eta euskara jakin gabe euskara batuaren eredu eta praktika kritikatzeko eta bezten saiatu direnekin; horien «arrazoiak», aitzakia ideologiko-politikoaren, sarritan antieuskaldunen, kutsua eta eragina edukitzeaz gain, benetan desarrazoi iragarriak besterik ez direlako normalean—. Alderantziz errespetagarriak eta benetan aintzat hartzekoa da euskara batuaren «trauma» jasaten ari duen hainbat euskaldun —euskaradun— jator eta jatorrizko. Inoiz idatzizko euskara batuak eta horrek komunikabideetako ahozko euskaran izan duen eraginak, nolabaiteko etsipena —inoiz amorrua— sortu dio, «nik ez dakit oraingo euskara berri hori» edo «nik ez dut nahi horrelako euskararik» esateraino.

Garbi dago funtsean euskaraz alfabetatzearen eta eskolatzearen arazoa dagoela hemen, euskara batuaren edo estandarren eta norberak amagandik dakien euskararen —euskalkiaren— arteko alde handi edo txikiaren azpitik sarritan. Sarritan, ez da horren errua, euskarazko alfabetatzea eta eskola hartu ez izana. Euskara batua eta euskaldun «osotua» elkarrekin doazela esatearekin batera, komunikabide sozialean —idatzizkoetan nahiz ahozkoetan— eta jendaurrean hitz egiten dutenen aldetik sentiberatasun didaktiko handia eskatzekoa da, horrelako jendeen hizkuntz zentzu jatorra ez mintzeko eta iraintzeko.

Ahalegin handia egin beharra dago «euskaldun-zaharrek» —normalean etxean eta familiaren barruan euskararen transmititzaile behinenak direnek— jasan dezaketen euskara batuaren «trauma» gaindi arazteko eta beren hizkuntzarekiko konfidantza berria suspertzeko. Izan ere, euskara batuaren arazo tekniko-linguistikoa traba sozio-linguistikoa handi bihur daiteke, hainbat herritarren kontzientzian eta hizkuntz praktikan etena sortzen baldin bada hizkuntza horren forma estandarra-

ren eta forma herritar eta dialektalaren artean. Euskararen berreskurapenaren plangintzari begira oso kontutan hartu beharrekoa da, herritarren alfabetatze-euskalduntzearekin batera, bizi ala hilekoa dela familiaren bidezko euskararen transmisioa. Eta familiako euskara funtsean euskalkian da bizi.

Ez dago lekuz kanpo hemen, euskara batuak ere hizkuntz forma bizia izan behar duela errepikatzea eta nabarmentzea; euskara batua biziko da, berriz, euskalkietan erroturik baldin badago; baina baita euskalkiak ere bizi ahal izango dira mundu modernoan, euskara estandarra eta modernoa gaurko kulturaren alor eta maila guztietan erabiliz. Euskara batua eta euskalkiak elkarren kontra ipintzea zozokeria da, astakeria izateaz gain.

Hizkuntza biziaren barruko batasunaren eta berezitasunen arteko orekari eustea eta hori lantzea hitzunen eta idazleen esku dago funtsean; gaur egun eskolaren eta komunikabideen bitartez betetzen da hori neurri handi batez. Hiztegi-gile eta gramatikarien egitekoak testiguena izan beharko luke. Akademiari goi-gidaritza eta ondoriozko arauketalana betetzea dagokio. Euskara biziak benetako normalkuntza soziala, kulturala eta instituzionala lortzen duenean, uste izatekoa da horren batasun-berezitasunen indarrak orekatzeko eragileen arteko oreka ere lortuko dela.

Euskara batua eta kultura modernoa

Modernotasunaren eskabide alderaezina da, hain zuzen ere, euskararen batasuna. Gaurko kultura modernoaren maila eta alor guztietan euskara erabili ahal izatean —areago, benetan erabiltzean— eta kulturako gai, kontzeptu eta bizipen guztiak euskaraz adieraztean datza euskararen modernotasuna. Kultura modernoarekin batera euskara modernoa bera lantzea eskatzen du horrek. Hori ezinezkoa litzateke euskararen forma estandar eta nazionala, herritar guztiontzat balioko duena, eduki eta landu gabe. Beraz, kultur arazoa da funtsean euskararen batasuna.

Zibilizazio modernoaren ezaugarri nagusienetako bat unibertsaltasuna eta historikotasuna dira. Mundu osoko Herrien eta gizarteen

arteko komunikazioa eta elkarreragina gero eta handiagoak dira; mila eratarata datozkigu kanpoan sorturiko eta landuriko sistema kultural eta sozialak, aurkikunde zientifiko-teknikoak, pentsamendu filosofikoak eta erlijiozkoak; hori dena geuretik eta geure hizkuntzan asimilatu eta adierazi nahi badugu, hizkuntzak ikaragarritzko modernizazio-ahalegina egin beharra dauka. Hizkuntzaren forma dialektala, ordea, kultura partikularrari eta kreaizio lokalari oso lotua egon ohi da. Jakina, horrek ez du inolako kontraktasunik ezarri nahi kultura partikularraren eta unibertsalaren artean; bere kultura partikularra eta identitate linguistiko-kulturala ditu Herri bakoitzak kultura unibertsalera irekitzeko eta hori asimilatzeke oinarria eta sustraia.

Bestalde, zibilizazio modernoaren historikotasunak orain arteko forma eta sistema kulturalen perspektiba edukitzea eskatzen du: historia osoa irakurri ahal izatea, modernotasunaren oinarritzat hartuz. Horretarako hizkuntza modernoak iraganeko kulturak irakurtzeko eta adierazteko gai izan behar du; horrek ere ahalegin handia eskatzen dio gaurkotze-prozesuan dagoen hizkuntzari, gure kasuan, euskarari.

Gaurko kulturaren ikuspegi eta edukin moderno hori, berorren orokortasunean, unibertsaltasunean eta historikotasunean, bildu, azaldu eta erakutsiko lukeen euskal entziklopedia orokor-unibertsala asmaezina da, euskara bera modernotu ezean eta horren forma estandarizatu eta batua landu gabe.

Hizkuntzak funtzio ezberdinak dituenek, gaurko kultura modernoari begira guzti horiek betetzeko gaitasuna eskatzen zaio euskara modernoari. Horren arabera, beharrezkoak ditugu: a) euskara didaktikoa, kultura modernoak metaturiko jakintza osotasunez erakusteko; b) euskara literarioa, kreaizio-forma gaurkoenak lantzeko; c) euskara zientifikoa, gaurko zientzia eta tekniken aurrerapenen araberako terminologia eta hizkera zehatzenez finkatzeko; d) euskara juridikoa, legeen eta administrazioaren alorreko hizkera artifiziosoari aurre egingo diona; e) euskara filosofikoa, gure artean eta munduan dagoen ideien produkzio oparoa euskaldunontzat argituko duena.

Guzti horrek proiektu linguistiko-kulturalerako lehen eskema dirudi. Izan ere euskararen batasunaren oinarrian proiektu kulturala dago.

Azken hogeita bost urteotan urrats handiak egin dira euskara modernotzeko bidean. Horiek ulertezinak dira euskara batuaren bidean egin diren urratsekin batera ez baldin badira ikusten.

Orain dela 25 urte ipinitako oinarriak guztiz garrantzizkoak izan ziren. Baina euskara batuaren eredu formalak egitea eta euskara modernotzea ez dira gauza bera. Gaurko kulturaren dinamikan bere adierazpen- eta kreaio-balio osoak lortzeko oraindik bide luzea urratu behar du euskarak.

Euskara batua euskaldunok batzeko

Euskara batuaren azken helburua kultura modernorako adierazpide eta tresna egokia eratzea baldin bada, funtsezko beste zentzu nagusi hau du horrek: euskaldunok batzea.

Azken urteotan bereizketa handia egiten ikasi dugu euskararen normalkuntzari begira: hizkuntzaren corpus-a (ikuspegi linguistikoa, zuzenean) eta hizkuntzaren *status*-a (ikuspegi soziolinguistikoa). Euskara batuaz ari garenean horren corpus-az ari gara zuzenean.

Baina iruditzen zaidanez, hizkuntzaren bi alderdien arteko bereizkuntza ez da inola ere erabatekoa. Teoria zientifikoan ondo dago eta beharrezkoa ere bada; baina euskararen batasuna hizkuntz praxi «politikoa» da aldi berean, modernotze kulturalari eta berreskuratze sozialari begira. Bi helburuok bereztezinak direnez, horietara zuzenduta dagoen hizkuntz batasunaren praxiak ezin du inola eta inoiz ahaztu edo alde batera utzi ikuspegi soziolinguistikoa.

Hizkuntzalariak eta akademikoak eduki dezakete arriskua hizkuntzaren arazo «linguistiko-linguistikoetara» mugatzekoa eta euskararen corpus-ari buruzko erabakiak beren zientziako edo akademiako olinpotik hartzekoa. Orohar ez dut uste hori izan denik Euskaltzaindiaren eta euskal hizkuntzalarien jokabidea; eta arbuiatzekoa da euskara batua laborategikoa dela esaten dutenen salaketa. Azken batez, herritar guztiok —hobe esan, euskara erabiltzen dugun guztiok— egiten dugu euskararen batasuna. Euskaltzainek, idazleek, hiztunek eta herritar euskaldun guztiok aplikatu behar ditugu euskararen corpus-ari buruzko erabakiak. Horregatik soziolinguistikoak gertatzen dira horiek.

Hemen, ordea, galdera larri bat dator burura: zertarako balio du euskara batuak, herritarrek euskara gero eta gehiago erabiltzera bultzatzen ez baditu, eta euskaldunok batzeko ez bada, geure arteko komunikazioa erraztuz?

Hauxe da, azken batez, logika zuzena: euskaldunok batu behar dugu euskara, hori erabiliz, euskarak batu gaitzan euskaldunok. Euskaltzaindiaren funtzioa euskararen batasuna gidatzea eta zuzentzea da, baina batasun globala eta herritarren erabilera kontutan hartuz, euskararen erabilera bultzatu ahal izateko. Euskararen batasunak euskararen erabileran eraginik izango badu, horren erabilerak izan behar du batasunaren abiaburu eta helburu. Corpus-aren eta Status-aren elkarreaginak etengabea izan behar du.

Sebero Altubek, bere «La vida del euskera» artikuluan (*Euskera*, XIV, IV, 299-397 or.), duela berrogeita hamar bat urte (1933an) zentzu bereko kezka larria agertu zuen: zertarako euskalarien eta akademikoen hainbeste lan euskara aztertzeke (eta euskara batua arautzeke), horren erabilera gainbehera baldin badator?

Gainbeheraldi luze eta handiaren ondoren, esperantza dugu euskararen berreskurapen soziala eta erabilera gora egiteko bidean daudela; horren euskarri eta eragile behar du izan euskara batuak.

Esandako guztiaren ondoren —eta ondorioz...eta kontradikzioz?— proposamen hauxe jaulki nahi nuke: hogeita bost urteko batasun-ahaleginaren ondoren, ordua da «euskara batua» esamoldea alde batera uzteko. Euskara dago, eta euskalkiak daude, italiara dagoen bezala —ez «italiera batua»— italiarren dialekto guztiekin batera. (Barka, italiararena konparazio-erreferentzia hutsa da, hango hizkuntza eta dialektoei buruzko inolako sentsibilitaterik mintzeko asmorik gabe egina).